

LABen proposamena

Gasteizko Hezkuntza Komunitateari

2019ko urtarrila



www.lab.eus

LABen proposamena Gasteizko hezkuntza-komunitateari

Azken urtean, gaur egungo hezkuntza sistemari buruzko hausnarketa sakona egiten ibili gara LABen baitan. Hausnarketa horren ondorioz, hainbat arazo eta gabeziri konponbidea emateko beharra ikusten dugu. Gabezi horien artean, hauek dira garrantzitsuenak gure ustez:

- Hezkuntza eskumen mugatuak Hego Euskal Herrian, eskumenik ez Ipar Euskal Herrian.
- Hezkuntzaren azpi-finantziazioa.
- Segregazio prozesuak, bereziki larria, jatorriarengatik eta profil sozioekonomikoarengatik.
- Hezkuntza ereduari dagokionez, hainbat gabezia: euskalduntzen ez duten ereduak, curriculum arrotzen eragina, ikuspegi androzentrikoaren indarra...
- Eskola publikoaren eredu zentralizatua.
- Eskola pribatu eta erlijiosoaren kontzertazio unibertsala.
- Hezkuntza komunitatearen zatiketa eta konfrontazioa.

Gure ortzimuga estrategikoa, **eskola publiko komunitarioa** sortzea da. Komunitarioa hezkuntza komunitatearen, auzoaren eta inguruaren parte hartzearekin funtzionatu behar duelako, komunitate horren isla izan behar duelako. Herri, genero nahiz klase ikuspegitik hezkuntza eredu burujabea eta askatzailea nahi dugu, murgiltze eredu, Euskal Curriculuma, hezkidetza, parte hartzea, gardentasuna, laikotasuna, doakotasuna eta aniztasuna izan behar dira hezkuntza ereduaren ezaugarriak. Horretarako, hezkuntza komunitatearekin elkarlana sustatu nahi dugu. Eskola publiko komunitarioaren bidean, hauexek dira eman beharreko pausuak:

- Eskola publiko komunitarioa sortzeko konfluentzia bultzatu. Trantsizio prozesua erraztu publikotasun eredu berri baten baitan publikazioa helburu. Egungo eskola publikoa deszentralizatu eta autogestio ereduak garatu.
- Udalen eta hezkuntza komunitatearen funtzioa indartu. Eskola publikoaren kudeaketaren transferentzia, lurralde administratibotik udalerriri / eskualdeetara eta hezkuntza komunitatera. Publikotasun eredu berria.
- Hezkuntzan BPGren %6 inbertitu. Ratioak jaitsi.
- Ikastetxe guztietan garatu: murgiltze eredu, Euskal Curriculuma, hezkidetza, parte hartzea, gardentasuna, laikotasuna, doakotasuna, aniztasuna. Azken honi dagokionez, gutxieneko indize bat bete beharko da diru publikoa jasotzeko.

- Egungo eskola kontzertatuen artean ikuspegi komunitarioa dutenekin elkarlan estrategikoa, eskola publiko komunitarioaren bidean. Aurrez aipatutako oinarriak bermatu. Doakotasun erreala. Jabetza soziala lehenetsi. Irakasleriaren homologazioa. Kontratazioetan aukera berdintasuna bermatu.
- Egungo eskola publikoetan, euskal eskola publiko komunitariorako bidea egin. Aurrez aipatutako oinarriak bermatu. Doakotasun erreala. Autonomia handitu eta autogestio egitasmoak martxan jarri. Irakasleria egonkortu.

Esan dugun moduan, ortzimuga estrategiko bat dugu LABen, baina horrera heltzeko, ezinbestekoa da **baldintzak gaurdanik sortzen hastea**. Eta beharrezkoa den tokietatik hasi behar gara. Horixe da Gasteizko kasua, non eskola segregazioaren egoera gero eta larriagoa den.

Halaber, hezkuntza komunitatearen zatiketa ekiditearen aurkako jarrera azaltzen dugu, benetako irtenbide praktikoak bilatzea zailtzen duelako gure ustez.

Ezinbestekoa da modu globalean eragitea. Inguruarekin lan egiten dugun bitartean, ikastetxeekin lan egin beharko da. Egoera hau Instituzioen eta hezkuntza eragile guztien artean konpondu behar dugu. Egitasmo estrategiko bat proposatzen dugu finantziario publikoa jasotzen jarraitu nahi duten hiriko ikastetxe guztiak inplikaturik. Eskumenak dituzten Instituzioek (Eusko Jaurlaritza eta Gasteizko Udala) konpromiso zehatzak hartu beharko dituzte eskola segregazioari buelta emateko.

Horregatik, baita garrantzitsua ikusten dugu ere, 2016an elkartu eta dokumentu bat publikoki plazaratu zuen **Gasteizko Hezkuntza eta Aniztasuna Lan Mahaia Interinstituzionalak eginiko hausnarketa**. Nahiz eta mahai hartatik konpromiso irmorik ez atera, hezkuntza komunitateko partaidetza nahiko zabala bildu duen foroa izan da.

Segregatzaileak diren elementuen inguruko hausnarketa egitea beharrezkoa da: kuotak, ikasgelen blindajea, laikotasun eza, hizkuntza ereduak, baremazioak, informazioa/bideraketa eta errealitate demografikoa.

- Baliabide ekonomiko eskasak dituzten familientzako gairak diren kuotak desagertzea jo behar dute, ikasle batzuen integrazioa oztopatu egiten baita ikasgelak blindaturik, batez ere "matrikula biziak" datozen ikasleena.
- Erljio katolikoko ikasgaiak eta eskola batzuetan burutzen diren kutsu erlijiosoa duten ekintzek sinismen araberako ikasleentzako banaketa eragiten dute. Erljioa, arlo pertsonalean bizi behar da eta ezin da dizu publiko finantziaturiko elementu segregatzaileak izan.
- Hizkuntza ereduaren inguruan, A eta B ereduak ia **erresidualak** dira gaur egun Gasteizen, eta eredu horietan matrikulatzen direnak, neurri batean tokia dagoelako egiten dute. Baina gaur egun, ez dirudi eredu horien existentziak eragin handirik duenik eskola segregazioan. Gaur egun, segregazioa gero eta gehiago ematen da D eredu ikastetxeetan. Hala ere, ereduak elementu segregatzaileak izan ahal dira, horregatik, euskarazko murgiltze ereduaren aldeko apustu irmoa egiten dugu.

- Baremazioetan ematen diren puntu batzuek segregazioan eragiten dute ere. Baremazio horiek, sistema orekatzeari begira ezarri behar dira.
- Arrazoi demografikoen inguruan esan daiteke auzoen errealitatek ez datorrela bat eskolen egoerarekin. Jatorri atzerritarra duten pertsonen portzentaia altuen duen auzoak %18a du. Gainontzekoetan, portzentaiaren batz bestekoa %10 inguruan dago. Datu horiek ez dute inondik inora bat egiten eskola batzuen portzentaiekin. Zonalde batzuetan, ikasle atzerritarren portzentaia oso altua duten ikastetxeak, oso baxua dutenekin batera daude. Beraz, auzoen segregazioak ikastetxeen egoeran eragin handirik ez duela ondorioztatu daiteke.
- Azkenik, Hezkuntza Ordezkaritzatik eta aniztasunik ez duten ikastetxe batzuetatik ikasleen araberako nahita emandako informazioak/bideratzeak egiaztatu dira. Bereziki "matrikula biziaren" kasuan. Informazioa eta deribazioa, bulego bakar batetik kudeatu behar da eta helburua sistema orekatzea izan behar da.

Aurreko guztia esanda, **hurrengo hau proposatzen dugu:**

- ▶ Gasteizko Udaleko Eskola Kontseiluak lan mahaia teknikoa biltzea hezkuntza komunitateko eragile guztiak deituz. Sindikatuak barne.
- ▶ Hezkuntza Ordezkaritzak bere momentuan eragileen artean adosturiko eta hartu ez ziren neurri praktikoak gaurdanik hartzea.
- ▶ Gasteizen gertaturiko segregazioaren inguruko aurreko lan mahaiaren azterketan sakontzea eta heldu ez ziren gaiei heltzea.
- ▶ Hezkuntza Sailaren ordezkariak mahai horretan egotea eta Hezkuntza komunitatearekin adostasunez sorturiko akordioak lotesleak izatea..
- ▶ Auzoz auzo xehetasunez eginiko analisia egitea hurrengo terminoetan:
 - 1- Haur hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeak eta atzerritar jatorriko, behar berezietako edo profil sozioekonomiko baxuko ikasleen portzentaia. Auzoaren/gunearen biztanleriaren portzentaiarekin alderatzea.
 - 2- Atzerritar jatorriko, behar berezietako edo profil sozioekonomiko baxuko gehienezko eta gutxienezko indizea aplikatzea. Horretarako, auzo/gune bakoitzaren datu demografikoak ikertuko dira. Indize horrek, auzoaren/gunearen errealitate sozialari erantzun beharko dio.
 - 3- Zuzentzeko portzentaiak aztertu eta neurriak proposatu. Inoiz ez da izango soilik ikasleen banaketa bat. Neurriak integralak eta sistemaren desorekak konpontzeari begira izan beharko dira: familien eskaerari loturiko informazioa, deribazioa eta kanalizazioa zuzena eta sistema orekatzeari begirakoa, behar berezietako eta espezifikotako ikasleen kopuruak ezagutzea, "matrikula biziaren" kudeaketa egokia eta gardena.

► Matrikulazio bulego bakarra martxan jarri. Mahai interinstituzionalean erabakiko da bai fisikoki zein estrukturalki zein den formularik egokiena bulego horrek behar bezala funtzionatu ahal izateko. Matrikulazio bulego hartatik, aurreko irizpide guztiak kontutan hartuko dira informazioa/deribazioa ematerako orduan.

► Maiztasun zehatz batekin auditoria zorrotzak eta gardenak egingo dituzte inplikaturako instituzioek, bai baliabideen erabilera zuzena eta sarrera kontrolatzeko zein behar estrukturalak, pertsonalak eta ekonomikoak aztertzeko behin matrikulazio kanpaina egina eta mapa eskolarra berordenatuta. Auditoria horien emaitzak hezkuntza komunitatearekin partekatuko dira.

Azkenik, esan dugun moduan, **hezkuntza komunitatearen zatiketa ekiditearen aldeko jarrera** azaltzen dugu, benetako irtenbide praktikoak bilatzea zailtzen duelako gure ustez. Horregatik, datozen asteetan, hezkuntza komunitate osoarekin partekatuko dugu gure proposamena, ekarpenak jaso ahal izateko eta egoera konpontzeko behar diren aliantzak bilatu ahal izateko.